



**EBAZPEN BATERATUA LANGILERIA KUDEAKETA ZUZENDARIARENA ETA ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ LAN-LEGEPEKO HEZITZAILE FINKOEI, LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO BITARTEKOEI ETA MUGAGABE EZ-FINKOEI IKASTETXEEN 2026/2027 IKASTURTERAKO ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.**

Administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalmenaren esparruan, Hezkuntza Sailari dagokio zerbitzuak antolatzea, eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lan-kontratudun irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren 9. artikulua berariaz jasotzen du lana antolatzea Sailaren eskumena dela, eta langileek Hezkuntza Administrazioak beren lan-kontratuaren arabera ezartzen dizkien zerbitzuak eman beharko dituztela.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak 26. artikuluan xedatzen zuenez, hezkuntzari laguntzeko zerbitzuak, besteak beste, otsailaren 17ko 40/2009 Dekretuan araututako Berritzeguneak, lankidetzan arituko ziren ikastetxeekin irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, eta haien eginkizunen artean zegoen ikastetxeen eskura egon arren beren izaerarengatik edo dimentsioarengatik bertan ezin egon izan ziren baliabideak kokatzea.

186/2017 Dekretuak, uztailaren 4koak, ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratudun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duenak (huts-zuzenketa, 2017ko abuztuaren 29ko EHAA), Hezkuntza Saileko hezkuntza-langileen lanpostuak konfiguratu zituen. Lanpostu horietan zeuden hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak eta okupazio terapeutak, hainbat destinori atxikiak zeuden, horien artean, zonako berritzeguneei.

Otsailaren 24ko 20/2026 Dekretuak, Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa (BiziLab) sortzekoak eta haren lanpostu-zerrenda onartzekoak, uztailaren 4ko 186/2017 Dekretuan jasotako lanpostu-zerrenda aldatzen du. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratudun langileen lanpostu-zerrenda onartu zen (2017-07-11ko EHAA, 131. zk.), bai eta ondorengo aldaketak ere, eta honela geratzen dira:

Lanpostuaren izena	Lanpostu-Dotazioa	Egungo destinoa: Berritzegune	Geroko destinoa: kokapena
Fisioterapeuta	3473/1	A01	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/10	A02	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/2	A01	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/3	A01	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/34	A02	A1 Gasteizko kokapena



Fisioterapeuta	3473/35	A01	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/4	A01	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/5	A02	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/6	A02	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/7	A02	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/8	A02	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/9	A02	A1 Gasteizko kokapena
Fisioterapeuta	3473/12	B09-B10	B1 Durangoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/18	B06	B1 Durangoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/21	B09	B1 Durangoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/22	B10	B1 Durangoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/19	B07	B2 Leioako kokapena
Fisioterapeuta	3473/20	B08	B2 Leioako kokapena
Fisioterapeuta	3473/31	B07-B08	B2 Leioako kokapena
Fisioterapeuta	3473/ 33	B01	B3 Bilboko kokapena
Fisioterapeuta	3473/11	B02-B06	B3 Bilboko kokapena
Fisioterapeuta	3473/13	B01	B3 Bilboko kokapena
Fisioterapeuta	3473/14	B02	B3 Bilboko kokapena
Fisioterapeuta	3473/15	B03	B4 Barakaldoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/16	B04	B4 Barakaldoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/17	B05	B4 Barakaldoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/32	B03-B04	B4 Barakaldoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/37	B05	B4 Barakaldoko kokapena
Fisioterapeuta	3473/23	G01	G1 Donostiako kokapena
Fisioterapeuta	3473/24	G01	G1 Donostiako kokapena
Fisioterapeuta	3473/25	G02	G1 Donostiako kokapena
Fisioterapeuta	3473/26	G02	G1 Donostiako kokapena
Fisioterapeuta	3473/28	G04	G1 Donostiako kokapena
Fisioterapeuta	3473/30	G06	G1 Donostiako kokapena
Fisioterapeuta	3473/36	G06	G1 Donostiako kokapena
Fisioterapeuta	3473/27	G03	G2 Eibarreko kokapena
Fisioterapeuta	3473/29	G05	G2 Eibarreko kokapena



Fisioterapeuta	3473/38	G03	G2 Eibarreko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/1	A01/A02	A1 Gasteizko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/11	A01/A02	A1 Gasteizko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/16	A02	A1 Gasteizko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/5	B09/B10	B1 Durangoko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/4	B07/B08	B2 Leioako kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/12	B06	B3 Bilboko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/2	B01	B3 Bilboko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/3	B02	B3 Bilboko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/13	B02/B04	B4 Barakaldoko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/9	B03/B05	B4 Barakaldoko kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/10	G01	G1 Donostiako kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/15	G04	G1 Donostiako kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/6	G02	G1 Donostiako kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/7	G05	G1 Donostiako kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/8	G06	G1 Donostiako kokapena
Terapeuta okupazionala	3467/14	G03	G2 Eibarreko kokapena

2- Hezkuntza-laguntzako espezialistak eta zeinu-hizkuntzako interpreteak Hezkuntza Saileko ikastetxe publiko bati atxikiko zaizkio. Transkribatzaile edo material-egokitzatzaileak IBTetara, eta gizarte-langileak Hezkuntza Ordezkaritzetara.

Horregatik guztiagatik,

### EBAZTEN DUGU:

**Lehena.-** Ikastetxeari atxikitako hezkuntza-laguntzako espezialista eta Zeinu Hizkuntzako Interpreteen kategorietan lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean 2026/2027 ikasturterako ikastetxeen esleipena.

2026/27 ikasturteko ikastetxeen esleipena ez da posible 2019ko ekainaren 4ko Akordioaren bidez egitea. LPZ berria onartu eta hezitzaileen lanpostuak ikastetxeetara esleituta egon arte, hezitzaileak 2025/26 ikasturtean zehar lanean egon diren



ikastetxean geratuko dira eta bertan jarraituko dute hurrengo ikasturteetan, baldin eta ikastetxean behar kopurua mantentzen bada. Salbuespenak:

-Finkoek lekualdatze-lehiaketan mugitzeko aukera izango dute.

-Mugagabeek eta lanpostu hutsetan daudenek beren plazari uko egitea izango dute. Plazari uko egiten diotenenek IKHAn parte hartu ahal izango dute. Uko egiteak abuztuaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Ikastetxe bakoitzari atxikitako langileen zerrenda eranskin batean argitaratuko da, ebazpen honekin batera.

### **Bigarrena.- Lan-egokitzapenak.**

Orokorrean, 2025/26 ikasturtean zehar zerbitzuak ematen egon diren ikastetxean geratuko dira eta bertan jarraituko dute, betiere haien funtzioak betetzea badute. Egokitzapenaren ondorioz ezin badituzte beren lanpostuaren berezko eginkizunak bete, Administrazioak eginkizun horiek bete ditzaketen lanpostu batera mugituko ditu, egokitzapenaren baldintzak errespetatuz.

### **Hirugarrena.- 2026/2027 ikasturteko Ikastetxeen esleipena ikastetxean beharrak gutxitzen badira.**

Ikastetxearen beharrak desagertu edo gutxitzen badira eta, ondorioz, plazaren bat soberan baldin badago, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan hainbat hezitzaile daudenean desplazatua/suprimitua zein den aukeratzeko:

- Finkoek lehentasuna dute bertan geratzeko. Plaza hutsetan dauden langileak eta mugagabeen plazak finkoen plazan aurretik desplazatuko dira.
- Plaza hutsetan dauden langileen plazak mugagabeen plazan aurretik izango dira desplazatuak. 2025/26 ikasturterako egindako ikasturte guztirako ekoizpen arrazoiengatik kontratua dutenak lanpostu hutsetan dauden langileak izango dira ondorio guztietarako.
- Kontratu mota bera duten langileen artean Ikastetxean izandako azken kontratuaren iraupen luzeena duen langilearen plazak lehentasuna izango du ikastetxean jarraitzeko .
- Kontratu mota bera duten langileen artean, ikastetxean izandako azken kontratuaren iraupena berdina den kasuetan, kolektiboan antzinasun handiena duen langilearen plazak lehentasuna izango du ikastetxean jarraitzeko..

Beharrak gutxitzeagatik ikastetxeetan soberan geratzen diren plazak beharrak handitu dituzten ikastetxeetara mugituko dira.



Lekuz aldatzen diren plaza horietan dauden hezitzaileak plaza horietan jarraituko dute, eta 2026/2027 ikasturtean esleitutako zentro berrian hasiko dira. Plaza horretan jarraitu nahi ez badute:

- Finkoen kasuan lekualdatze lehiaketan parte hartu dezakete eta gainontzeko finkoen aurretik lehentasuna izango dute.
- Mugagabe eta plaza hutsean daudenek plazari uko egin beharko diote horretarako ezarritako epean eta IKHAn parte hartzeko aukera izango dute.

Plaza posible guztiak mugitu ondoren, beste premiarik ez dagoelako desagertuko liratekeen plazak baleude, lanpostu horietan leudeken pertsonak suprimituak izango lirateke eta haien kontratuak 2026ko abuztuaren 31n amaituko lirateke. Hortaz, IKHAn parte hartzeko aukera izango lukete kontratuari uko egin beharrik gabe.

Plaza suprimiturik balego, plaza horietan dauden langileen zerrenda argitaratuko litzateke, kontratua abuztuaren 31n amaituko zaiela jakin dezaten eta zerrenda horretan leudeken langileek erreklamazioa egiteko aukera izango lukete.

#### -Zeinu hizkuntzako interpreteak

Datorren ikasturterako zeinu hizkuntzako interpreteen beharrak abuztura arte ez dira ezagutuko. Hortaz, gerta liteke lekualdatze-lehiaketan hartutako lanpostu bat irailetik aurrera desagertzea. Hori gertatzen zaion langileari lurralde berean beste lanpostu bat eskainiko zaio beste hezitzaileekin jarraitu diren irizpide berdinak erabiliz.

#### **Laugarrena.- Bateriaezintasunagatik eszedentzia duten langile finkoak lanera itzultzeko eskaera**

Bateriaezintasunagatik eszedentzian dauden langileek lanera itzultzeko eskatu ahal izango dute maiatzaren 29tik ekainaren 2ra bitartean, horretarako argitaratuko den formularioaren bidez. Lanera itzultzea eskatzen dutenean, esleitu ez zaien plaza libre bat esleitu zaie, halakorik balego.

#### **Bosgarrena.- Ondorioak eta kontratuan eraginak.**

Esleitutako plazen esleipenari ezin zaio uko egin.

Ikasturte berrian ikasturte honetan lan egiten duten ikastetxea ez den beste batean zerbitzuak emango dituzten langileek ikastetxearen kontratu-berritze bat sinatu beharko dute.

### **ERREKURTSOAK**

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuaren aurrean, hilabeteko



epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren data-orduan

**LANGILERIA KUDEAKETA ZUZENDARIA**

**ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO  
ZUZENDARIA**

**UNAI NIETO MARIJUAN**

**MIKEL JUARISTI IZAGUIRRE**